

Malintxe

Moctezumaren atxiloketa Hernian Cortesen eskutik.

Margolan horrek Mexikoko konkista irudikatzen du. Pintura hori egile anonimo batek sortu zuen 1783an. Madrileko Amerikako museoan dago ikusgai.

Margolan horretan Hernian Cortes espainiar konkistatzaileak azteken buruzagi Moctezuma atxilotzen duen unea irudikatzen da. Hor buruzagi aztekaren eta espainiarren arteko itzultzaile lanak egiten ageri da Malintxe, Mailina liti ebatu, gerora, Malintxe edo Doña Maria izenez ere ezagun egin zen. Emakume hura Koatzakoalko herrian, gaur egun Mexikon jaio zen, 1502an. Noble familia batean jaio bazen ere, maiek esklabo hartu zuten. Geroago azteken eta maien inperioen konkistan garrantzi handia izan zuen. 1.529 inguruan baztangaz gaixotuta hil zen.

Espainiarrek XVI. mendeko lehen laurdenean azteken eta maien lurraldeak konkistatu izanak berebiziko eragina izan zuen Malintxeren bizitzan. Lurralde horiek gaur egungo Mexikon kokatuta zeuden. Hernian Cortes konkistatzailearen agindupean, espainiarrek azteken eta maien lurraldeak militarki menderatu zituzten. Gero, haien aberastasunak hartu eta Moctezuma enperadorea bahitu zuten. Azkenean azteken eta maien lurraldeak Espainiako Inperioaren barnean sartu zituzten.

Maien eta azteken inperioak zergatik erori ziren jakiteko hainbat kausa aipa daitezke:

Alde batetik, Espainiako konkistatzaileen arma nagusitasuna. Aztekek ezagutzen ez zituzten suzko armak zituzten, eta erasotzaileek erabiltzen zituzten zaldiek eta txakur harrapariak etsaiak izutu egiten zituzten.

Bestetik, azteken artean barne arazoak zeuden. Azteka inperioa beste herri batzuk zapalduz eraiki zuten, eta agintarien artean borroka handiak sortu ziren, boterea nork lortuko.

Azkenik, azteken sinesmenak ere kontuan hartzekoak dira. Sinesmen horien arabera, gaztelarrak jainkoaren zigorren baten transmititzaileak ziren, eta konkistatzaileekin batera iritsitako izurriek beldur horiek egiaztatzen zituztela zirudien.

Hernian Cortes buru zuten konkistatzaileak azteken eta maien lurraldera iristean, jakiak, arropak, urrea eta esklabuak jaso zituzten, menderatuen nolabaiteko borondate gisa. Horietako opari baten parte izan zen Malintxe esklaboa. Konkistatzaileek Doña Marina

izen kristauarekin bataiatu zuten. Cortes ohartu zen konkistatu nahi zituen maien eta azteken herrietako hizkuntzak bazekizkiela Malintxek. Horrela, Malintxe itzultzaile gisa erabiltzen hasi zen. Gaztelania bizkor ikasi zuen. Cortesen konfiantza eskuratu zuen, eta itzultzaile izateaz gain, konkistatzailearen idazkari eta maitale ere izan zen. Harreman horretatik seme bat jaio zen.

Malintxe pertsonaia eztabaidagarria izan zen Latinoamerikan. Batzuek traidoretzat hartu izan dute, besteek, aldiz, biktimatzat.

Luzaroan, Malintxe espainiarren konkista erraztu zuen traidoretzat jo izan da. Batzuen iritzian, azteken eta maien inperioaren konkistan garrantzi handia izan zuen. Hernian Cortesen itzultzaile ez ezik, bere aholkularia izan zen. Bertakoen ohitura sozialak eta militarrek azalduz lagundu zien espainiarrei. Horren adibide da Hernian Cortesek lurralde berrien konkistaren inguruan gutun batean idatzi zuena: "Konkista lehenik Jainkoari zor diogu, eta bigarrenik, Doña Marinari".

Beste batzuek biktimatzat hartzen dute Malintxe. Herrikideek arbuiatu eta esklabutzara eramane zutela diote, baina konkistatzaileekiko leialtasunak esklabotzatik libre izateko eta gizarte maila berreskuratzeko aukera eman ziola. Gaineratzen dute, konkistatzaileen eta konkistatuen arteko negoziazioetan parte hartzen zuenean, alferrikako odol isurtzeak saihesten ahalegintzen zela.

Hortaz, zuk zer iritzi duzu Malintxeren gainean? Zer izan zen indigenak saldu zituen traidorea, hala indigenen biktima?